

2026KO MAIATZAREN 25A

# begoñazpi



## DANTZARIAK DANTZAN

Joan dan zapatuan,  
Ikastolako dantzariok  
Garaizarreko jaietako  
dantza ekitaldia izan  
genduan.

GEHIAGO

EITB  
IKASTOLAN



ENGLISH  
THEATRE



KONTZERTU  
DIDAKTIKOA

# Ikastolako dantzariak Garaizarreko jaietako dantza ekitaldian

Joan dan zapatuan, maiatzak 16, Ikastolako dantzariok Garaizarreko jaietako dantza ekitaldia izan genduan. Eguraldia ona izan ez bazan be, ikasturte honetako aurreko hiru ekitaldietan izan ez dan moduan, plazan dantzatu ahal izan genduan. Giroa bikaina izan zan eta gogo onez dantzatu genduzan Euskal Herri osoko dantzak: Bizkaiko Dantzari dantza eta Gorrulariak, Pirinioetako alde bietako Muxikoak, Gipuzkoako Sorgin dantza eta Agurra, Lapurdiko Zapatagin dantza, Nafarroako Xanpetrike...

[INFO GEHIAGO | MÁS INFO](#)



## 2026-2027 ikasturteko Hezkuntza Ez-Formaleko jardueretan izena emoteko epea Zabalik

[INFO GEHIAGO | MÁS INFO](#)

## 'Txiki-egiak' EITBko Makusi plataformako programa Ikastolan

Azken egunotan berezi-berezia dan esperientzia bizi izan dogu Ikastolan. Bertan izan doguz EITBko Makusi plataforman emongo dan "Txiki-egiak" saioaren grabazioa egiten. Esperientzia oso aberasgarria izan da ikasleentzat zein bertan egon garanontzat. Bide batez, ikasleek telebistaren mundua gertutik ezagutzeko, taldean lan egiteko eta euren buruarengan konfiantza hartzeko sekulako egokiera izan dabe.

[INFO GEHIAGO | MÁS INFO](#)



## Ingelesez antzeztan

Dakizuenez, Ikastolan English Theatre antzeztanak izan doguz. Jarduera honen helburua, ahozko ulermena sustatuz eta hizkuntzaganako harremana modu naturalean biziz, ingelesa modu ludiko eta motibatzailean lantzea izan da.

[INFO GEHIAGO | MÁS INFO](#)



## Kontzertu didaktikoa

LH3. mailatik aurrera, musika-ibilbideari ekinez gero, ikasle bakoitzak aukeratutako instrumentuaz gozatzeko modua izango dau. Aukeraketa errazteko asmoz, Bedmar Musika Eskolarekin batera kontzertu didaktikoa antolatu dogu.

[INFO GEHIAGO | MÁS INFO](#)

